Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko ekainaren 11, ostirala — 109 — Viernes, a 11 de junio de 2021



## BAJO DEBA SOCIEDAD ANÓNIMA-BADESA

*Batzar Orokorrak 2021eko maiatzaren 19an egindako bilkuran hartutako erabakia. 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeak sektore publikoko langileentzat ezarri duen soldata igoera onartzeko erabaki proposamena; legea Badesa SAuri aplikatzen zaio, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Bidezkoa bada, onartzea.*

2021eko ekitaldirako Badesa, SAUko langileen soldatak igotzeko presidenteak egindako hitzarmen proposamenaren berri eman ondoren, jarraian transkribatuko dena, bileran dauden kideek aho batez onartu dute.

Azaldutakoaren arabera, presidenteak erabaki hau onartutzat eman du.

Kontuan izanda 11/2020 Legeko, abenduaren 30eko, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorreko 18. artikuluan ezarritakoa.

Kontuan izanda 2021eko ekitaldirako sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen soldata igoerak onartzeko Eudelek egindako proposamenak hau adierazten duela:

«11/2020 Legearen 18 Bi artikuluaren edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, Udalhitz Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

Era berean, Eudelek berretsi du garrantzitsua dela «Udalhitz 2008-2010 Akordioa» bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo Udalhitz 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako «jarraipen-mahaiak» izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo Udalhitz 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gaiei buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua Eudelen eta sindikatuen arteko Udalhitz Negoziazio Mahai Orokorrean dagoen».

2021eko maiatzaren 7ko txostenaren arabera Kontu-hartzailetza arloak aldeko txostena egin duenez, erabaki hau hartu da:

## BAJO DEBA SOCIEDAD ANÓNIMA-BADESA

*Acuerdo adoptado por la Junta General, en sesión celebrada con fecha 19 de mayo de 2021. Propuesta de acuerdo de aprobación del incremento salarial autorizado por la LPGE 2021 para el personal del Sector Público, aplicable a Badesa, SAU, con efectos desde el día 1 de enero de 2021. Aprobación, si procede.*

Dada cuenta de la Propuesta de Acuerdo, emitida por el Presidente, referente a incremento de retribuciones salariales del personal de Badesa, SAU para el ejercicio 2021, que se transcribe a continuación, ésta es aprobada por la unanimidad de los miembros asistentes al acto.

Por lo expuesto, el Presidente declara aprobado el siguiente acuerdo.

Visto lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 11/2020, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2021.

Visto la propuesta de Eudel relativa a la aprobación de incrementos retributivos del personal al servicio del sector público para el ejercicio 2021, que dice así:

«En relación con el contenido del art. 18. Dos de la Ley 11/2020, Eudel recomienda incrementar las retribuciones del personal al servicio del sector público, con efectos 01/01/2021, el máximo legal permitido, esto es, un 0,9 % respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2020, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal, como a la antigüedad del mismo.

Por medio de esta recomendación Eudel pretende aclarar el alcance jurídico de este precepto legal, confiando en que todo ello permita allanar el camino para futuros avances en el marco de la negociación colectiva que debe tender a la consecución de un nuevo Acuerdo Regulador Udalhitz.

Igualmente, Eudel reitera la importancia de que el «Acuerdo Udalhitz 2008-2010» sea cumplido en sus términos, ya que es en el cumplimiento real de los acuerdos alcanzados donde radica su principal garantía, sirviendo además como legitimación para la consecución de un nuevo acuerdo sectorial. En tal sentido el instrumento para subsanar las posibles deficiencias del cumplimiento del actual Udalhitz 2008-2010 debiera ser, tal y como les venimos recordando en las últimas Circulares, las «Mesas de Seguimiento» habilitadas en cada institución. Les recordamos que el objeto de estas mesas se circunscribe, exclusivamente, a facilitar acuerdos para la subsanación de los posibles incumplimientos puntuales que puedan darse en el actual Acuerdo Udalhitz 2008-2010, y que deben abstenerse de abrir cualquier proceso negociador de materias ajenas, cuyo ámbito de aplicación radica en la Mesa de Negociación General Udalhitz entre Eudel y las centrales sindicales».

Considerando que se ha informado de forma favorable por parte del área de Intervención según Informe emitido de fecha 7 de mayo de 2021, se acuerda:

EK\CV GAO-I-2021-03878

*Lehenengoa.* Onestea 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden langileen soldatak % 0,9 igotzea, 2021eko urtarrilaren 1eko aurrerako ondorioekin.

*Bigarrena.* Argitaratzea badesa, SAUren gardentasun atarian eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN hitzarmen hau eta lanpostuen zerrenda egokitzea hitzarmen honetako zenbatekoetara.

*Hirugarrena.* Hitzarmen hau bidaltzea Kontu-hartzailetza eta diruzaintza arloari soldata igoerak aplika ditzan.

Jende guztiak jakin dezan argitaratzen da.

Eibar, 2021eko ekainaren 2a.—Iosu Arraiz Aramburu, presidentea. (3878)

*Primero.* Aprobar el incremento de las retribuciones del personal en un 0,9 % respecto a los vigentes a los vigentes a 31 de diciembre de 2020, con efectos desde el 1 de enero de 2021.

*Segundo.* Publicar en el Portal de Transparencia de Badesa, SAU y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el presente acuerdo y adecuar la Relación de Puestos de Trabajo a los importes resultantes del presente acuerdo.

*Tercero.* Remitir el presente acuerdo al área de Intervención y Tesorería para que proceda a la aplicación de los incrementos retributivos.

Lo que se publica para general conocimiento.

Eibar, a 2 de junio de 2021.—El presidente, Iosu Arraiz Aramburu. (3878)